

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Beasaingo Udala

Ayuntamiento de Beasain

2009



AURKIBIDEA/ÍNDICE

0. LABURDURAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 UDALA ETA TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK.....	8
II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	8
II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA	10
II.2 BEASAIN LANTZEN, SA SOZietATE PUBLIKOA.....	11
I.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	11
I.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA	12
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	13
III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA	13
III.2 SARRERA FISKALAK.....	13
III.3 LANGILERIA	13
III.4 KONTRATAZIOA	15
III.5 DIRU-LAGUNTZAK.....	17
III.6 BEASAIN LANTZEN, SA SOZietATE PUBLIKOA.....	17
IV. FINANTZA ANALISIA	18
V. URTEKO KONTUAK	23
ALEGAZIOAK	31
0. ABREVIATURAS	41
I. INTRODUCCIÓN	43
II. OPINIÓN	44
II.1 AYUNTAMIENTO Y ORGANISMOS AUTÓNOMOS LOCALES	44
II.1.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD	44
II.1.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	46
II.2 SOCIEDAD PÚBLICA BEASAIN LANTZEN, S.A.	47
I.2.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD	47
I.2.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	48
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	49
III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD	49
III.2 INGRESOS FISCALES	49
III.3 PERSONAL	49
III.4 CONTRATACIÓN	51

III.5 SUBVENCIONES	53
III.6 SOCIEDAD PÚBLICA BEASAIN LANTZEN, S.A.	53
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	54
V. CUENTAS ANUALES	60
ANEXOS	67
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	67
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias	68
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	71
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	72
A.5 Enajenación inversiones reales	73
A.6 Gastos de personal	74
A.7 Compra de bienes corrientes y servicios	76
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas	77
A.9 Inmovilizado y patrimonio en situaciones especiales.....	78
A.10 Pasivos financieros.....	80
A.11 Deudores presupuestarios.....	80
A.12 Tesorería.....	81
A.13 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	82
A.14 Clasificación funcional del gasto	83
A.15 Contratación	84
A.16 Sociedad Pública Beasain Lantzen, S.A.	86
ALEGACIONES	91

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 16a
Vitoria-Gasteiz, 16 de febrero de 2011



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

0. LABURDURAK

BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.
TEOA	1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
LETB	1/1995 Legegintzako Errege-Dekretua, martxoaren 24koa, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina.
APKLTB	2/2000 Legegintzako Errege-Dekretua, ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bategina.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Beasaingo Udalaren 2009ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta oroitidazkia; baita udalaren eta bere Erakunde Autonomoen aurrekontuen likidazioa ere.

Beasain Lantzen, SA Sozietate Publikoaren kontuei dagokienez, gure lana kanpoko enpresa batek gauzatutako auditoretzako txostena aztertzea izan da eta horretarako, auditoreen lan paperetan euskarrituak egotea egiaztatu dugu eta beharrezko iritzitako proba osagarriak edo auditoriako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.

- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren, bere Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Beasaingo udalerririk 13.557 biztanle ditu 2009ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera eta bere egiturari, Udalaz gain, Antzizar Kirolaren Udal erakundea, Loinatz Musika Eskola eta udal Euskaltegia Erakunde Autonomoak besarkatzen ditu; baita, Beasain Lantzen, SA Sozietate Publikoa ere, udalaren partaidetza % 100ekoa duena; honako hau du xede soziala: lurzorua sustatu, antolatatu, urbanizatu, salerosi eta babes ofizialeko eta prezio tasatuko etxebizitzak, eraikin industrialak, zerbitzuak eta erabilera publiko zein pribatukoak izan daitezkeen zuzkidura komunitarioen kudeaketa.

II. IRITZIA

II.1 UDALA ETA TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA (IKUS A.15)

1. Udalak 2009ko ekitaldian ondoko gastuak egikaritu ditu, kontratazioko arautegian legez ezarritako prozedurak saihestuta:
 - Udal haurtzaindegia handitzeko erositako lokalaren egokitze lanak gremio ezberdinetako hainbat enpresak zuzenean exekutatu dituzte, guztira 452.343 euroko gastu globalarekin; ordea, kontratu-xedearen guztizko osoarekin izapidetu behar zatekeen, publizitatea emanda kontratazio espediente bakar batean. Gainera, gastu horiek behar hainbateko aurrekontu-izendapenik gabe exekutatu dira; bada, behin obrak exekutatu ondoren aurrekontu aldaketa bat onetsi zen, kreditu osagarriaren moldepean.
 - Iturraldeko haur-parkeko segurtasuneko zoruaren kostua 58.000 eurokoa izan da; parke horretako gaien hornidura publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez 61.222 euroren zenbatekoan esleitu zitzaion enpresa bati eta enpresa honek berak hornitu du zuzenean zorua; zenbatekoak, ordea, gainditu egin du SPKLren 157. artikulua prozedura hori baliatzeko ezarria duen muga, kontratu-xedearen prezioa osotasunean hartzen badugu; beraz, prozedura irekiari jarraiki izapidetu behar zatekeen.
 - Enpresa bakar batek udal eraikinetan egindako argindar-lanek, herriko argiek eta aparteko jarduerak 114.995 euroko egikaritzea izan dute 2009ko ekitaldian. Gastu horiek guztiak bereizirik fakturatutako zerbitzuei badagozkie ere, zerbitzu bat bera osatzen dute eta honenbestez, SPKLren 74. artikulua urratu da kontratuaren xedea zatikatzean; bidezkoa, publizitadedun prozedura izapidetzea zatekeen, gauzatutako bolumen ekonomikoa aintzat hartuta.
 - 2005eko ekitaldian publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez Igartza jauregiaren egiturazko analisia egiteko kontratua esleitu zen 27.596 euroan; hirugarren honek berak zuzenean gauzatu ditu proiektuak mamitzeko eta obrak zuzentzeko lanak, 23.966 eta 83.205 euroren zenbatekoan 2008 eta 2009ko ekitaldietan, hurrenez hurren, publizitate eta leia printzipioak urratuz.
2. Udal eraikinak garbitzeko zerbitzuaren kontratu lehiaketa aleko prezioetan esleitu zen 362.538 euroan balioetsitako aurrekontuarekin eta bi urteko eperako; parkeak eta lorategiak mantendu eta zaintzeko zerbitzuaren kontratu lehiaketa, berriz, 1,2 milioi euroren zenbatekoan esleitu zen 4 urtetarako; bi kontratuak ez dira argitaratu ez DOUEn, ez BOEn, hurrenez hurren, APKLTBren 203. artikulua eta SPKLren 126. artikulua urratuz.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

3. Bide-garbiketa zerbitzuaren kudeaketa kontratua Udalak 2002ko ekitaldian 8 urteko eperako 2,5 milioi euroren zenbatekoan esleitu zuen; kontratu honek 2009ko abenduaren 31n exekuzioaren gainean eta hasiera batean esleitutako zenbatekoarekiko % 40ko igoera izan duela balioetsi da (pleguetan aurreikusitako prezio-berrikuspenak salbuetsita); ondotik zerrendatutako kontratu aldaketak egin zaizkio, beharizan berri eta ezustekoen ondorio izan arren, APKLTBren lehia printzipioak urratzen dituztenak, kontratuaren xedea ez ezik, bolumen ekonomikoa ere desitxuratzen dutelako:
- 2005eko ekitaldian horretarako eskumenik ez zuen atalak pleguetan jasotako prezioak ikuskatzeko klausula aldatu zuen; izan ere, sektorearen hitzarmen kolektiboa onetsi ondoren kontratuan sortutako desoreka ekonomikoak eragindako konpentsazioa jaso baitzen; horrek, APKLTBren 104. artikuluan adierazitako aldaezintasun manua urratzen baitu.
 - 2006ko uztailaren 1etik aurrera ondorioak eragingo dituen aldaketa, kontratu osoaren gainean % 8ko igoera ekarri zuena eta kontratazio atalak ez izapidetu, ezta onetsi ez zuena; horrek guztiak APKLTBren 101. artikulua urratzen du, izan ere, esleipen hartzaile zen enpresak langileak gehitu baitzituen Udalarenak berarenak ziren eta zerbitzu hori ematen zuten langileen behin-betiko bajaren ondorioz.
 - 2007ko azaroaren 29ko kontratazio atalak behar bezala onetsitako aldaketa, hasiera batean esleitutako kontratuaren gainean % 20ko igoera ekarri duena; igoera hori eragin du Udalarenak berarenak ziren langile kopurua murrizteak eta esleipen hartzaile den enpresak langile- eta gauzazko baliabideak gehitu behar izateak; baita, kontratuaren xede diren urbanizazioak gehitu izateak ere.

ONDAREA

4. Udalak ez du lurzoruaren ondare publiko independentea eta gainerako bere ondaretik bereizitakoa, horrek Lurraren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 112. artikulua agindutakoa urratzen du.

BESTELAKO ALDERDIAK

5. Kirolgunearen kudeaketa osoaren emakidadun den enpresak bidegabeko kaleratzea ordaindu zion subrogatutako langile bati; horren ondoren, Antzizar Udalaren Kirol Institutua Erakunde Autonomoaren Zuzendaritza Batzordeak 2008ko maiatzaren 23an 24.000 euro gehi berandutza interesen ordainketa osagarria baimendu zuen langile honen alde; ordainketa 2009ko ekitaldian gauzatu da 25.100 euroren zenbatekoan. Erakunde Autonomoak baimendutako ordainketa egiteko administrazioak ez du inongo lan, kontratu edo ondarezko erantzukizunen obligaziorik.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 5era bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, Beasaingo Udalak eta Toki Erakunde Autonomoek zuzentasunez bete dute 2009ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Beasaingo udalak 2009ko abenduaren 31n 2008 eta 2009ko ekitaldietako Udal Finantzaketarako Foru fondoaren likidazio negatiboetatik eratorritako zor saldoak erregistratu ditu ondarean, 482.577 euro eta 1,8 milioi euroren zenbatekoan; Gipuzkoako Foru Aldundiari itzulketa 2010eko ekitaldian egingo zaio eta 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietan, urte horietako itunpeko zergen partaidetzatik konturako ordainketak proportzionalki murriztuta. Aurrekontuan, kopuru horiek ekitaldi itxiera bakoitzean “Transferentzia arruntak” kapitulutik murriztu dira eta aldi berean, diru-sarrera “Finantza pasiboak” kapituluan aitortu da; honenbestez, ez dira 2009ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikinetik murriztu.

1. Epaitegi honen iritzira egin behar ziratekeen doiketek ondotik zehaztutako eragina dute 2009ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinaren, Egoera Balantzearen eta Funts Propioen gainean:

Kontzeptua	Euroak milakotan			
	Aurrekontuzkoa Diruzaintza geldikina	Ondarekoa Aktiboa	Ondarekoa Pasiboa	Funts propioak
09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
A.4 Toki Inbertsiorako Estatuko Funtsetik diru-laguntzak	127	127	-	127
A.5 8. sektorearen urbanizazio kuotak	80	80	-	80
A.5 Agauntza hirigintzako aprobetxamendua	95	95	-	95
Finantzaketaren desbideratze positiboak 09.12.31n				
A.4 Auzolan 2009 programa.....	(97)	-	97	(97)
Ondare doiketak				
A.9 Agauntzako lursailak besterentz. erag. galera atzeraezina	-	(453)	-	(453)
A.9 Hirigintzako aprobetxamendua 8. sektorea.....	-	(67)	-	(67)
GUZTIRA	205	(218)	97	(315)

Epaitegi honen iritzira, 1. idatz-zatiko salbuespenen eragina salbuetsita, Beasaingo Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Kontu Orokorrek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2009ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen eta 2009ko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian bere eragiketen emaitzena.



II.2 BEASAIN LANTZEN, SA SOZIETATE PUBLIKOA

II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA (IKUS A.16)

1. Antzizar kirolgune berriko lanen espedienteen analisisan ondoko ez-betetze hauek azaleratu dira:
 - Igerileku estaliak egin eta sarrera berria eta 1. solairua handiagotzeko lanak 5,5 milioi euroan eta 917.975 euroan esleitu dira; egikaritza, ordea, hurrenez hurren, 9,7 eta 1,4 milioi eurokoa izan da (% 77 eta % 54ko igoerak); ez dago behar bezain justifikatua kontratu-aldaketak beharizan berri eta ustekabekoen ondorio izan direla eta lehia printzipioak urratu dira, bai kontratuaren xedea, bai kontratuaren bolumen ekonomikoa desitxuratu direlako.
 - Sarrera berriaren eta 1. solairua handiagotzeko lanen “Zimendatze, egitura eta igeltserotza” atala zuzenean esleitu zitzaion 365.633 euroren zenbatekoan igerileku estalien eraikinaren eta kanpoaldeko igerilekuen proiektuetan atal bera gauzatu zuen kontratistari; jokamolde horrek, baina, administrazio kontratazioan buru egiten duten publizitate eta lehia printzipioak urratzen ditu.
 - Kontratista nagusiak obra osagarriak zuzenean egikaritu ditu 1,2 milioi euroren zenbatekoan (areto txikiak, urbanizazio lanak, zamaketa gunea...); horiek kontratazio independentea bideratu behar zatekeen, metatutako zenbatekoa aintzat hartuta; publizitate eta lehia printzipioak urratu dira.
2. Antzizar kirolgune berriko proiektuaren eta obra zuzendaritzaren kontratua udalak 2002ko azaroaren 20an esleitu zuen 254.511 euroan eta 2003ko azaroaren 28an aldatu zen, aurreikusitako obra-aurrekontua gehitu zelako 419.804 euroko zenbatekora arte. Kontratuak guztira 906.408 euroko egikaritza izan du guztira, nagusiki hasiera batean aurreikusitako obra unitateen egikaritzan izan diren desbideratzeen ondorioz eta hasiera batean aurreikusi gabeko lan osagarrien ondorioz; horiek guztiek urratu egiten dituzte lehia printzipioak, kontratuaren xedea ez ezik, kontratuaren bolumen ekonomikoa ere desitxuratu egin baitute.
3. Antzizar kirolgune berriko uretako txirristaren hornidura zuzenean esleitu zen 327.917 euroan; ordea, kopurua aintzat hartuta, DOUE eta BOEn argitaratu behar zatekeen, APKLTBren 78 eta 177. artikuluei jarraiki; horrek publizitate eta lehia printzipioak urratzen ditu.

Epaitegi honen ustetan, Beasain Lantzen, SA Sozietate Publikoak, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2009ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. 2009ko abenduaren 31n Urteko Kontuek zuzkitu gabeko 58.282 euroko kobratu gabeko zenbatekoa erakusten dute, Balio Erantsiaren gaineko Zerga-BEZ kontzeptuan, 2006ko ekitaldian areto batzuk besterentzetik eratorritakoa; horren gainean, ordea, interpretazio aldeak daude Beasain Lantzen, SAREN eta GFako Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuaren artean; izan ere, lehenengoak BEZaren salbuespena aplikatu zuen eta bigarrenak, berriz, ekitaldiko likidazioa hainbanakoaren erregela aplikatuz zuzendu zuen. 2010eko urtarrilaren 28ko Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak erreklamazioa ezetsi ondoren, Sozietate Publikoak errekurtsio ekonomiko-administratiboa aurkeztu du Euskal Herriko Auzitegia Nagusiaren aurrean eta txosten hau idatzi dugun datan, ebatzi gabe dagoena.
2. Sozietate Publikoak ez ditu 2009ko abenduaren 31n 2006tik 2009ra bitarteko ekitaldietako kanon finkotik eratorritako sarrerak barne hartu, Antzizar kirolgunearen kudeaketa osoaren emakidaren esleipen hartzaile den enpresak dituen kontratuko obligazioen ondorio. Diru-sarrera horiek 2010eko ekitaldian eskatu eta kontabilizatu dira.

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan adierazitako zalantzak izan dezakeen eragina eta 2. paragrafoko salbuespena alde batera, Beasain Lantzen. SA Sozietate Publikoen Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2009ko ekitaldiaren aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten dute, ondarearen eta 2009ko abenduaren 31n finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian zehar bere eragiketena.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Udalak 2009ko ekitaldian 10,5 milioi euroko aurrekontuko aldaketak onetsi ditu, hasiera batean onetsitako aurrekontuaren gainean % 65eko igoera egin dutenak. Guztira 2,6 milioi euroren zenbatekoan gaitutako kredituak nagusiki proiektuak finantzatzeko Toki Inbertsiorako Estatuko Funtsetik datoz; ordea, laguntzak arautzen dituzten arautegiaren arabera, ez dute hasierako aurrekontuetan aurreikusiak egon behar. 2,3 milioi euroko kreditu osagarriak, hasierako aurrekontuak onetsi ondoren hartutako konpromisoei dagozkie. Azkenik, aurreko ekitaldietatik eratorritako kreditu txertaketak, 5,6 milioi eurokoak, obrak egikaritzeko kredituen aurrekontua egiten denean aurreikusten den epearen eta horien egiazko egikaritza erritmoaren arteko desorekak eragindakoak dira. Komenigarria litzateke aurrekontua egitean eta geroko garapenean, obrak finantzatzeko zuzkitutako kredituak denboran egokitzea eta egoki diren konpromiso kredituak onestea.
- Udalaren 2009ko abenduaren 31ko Egoeraren Balantzean “Diruzaintza” idazpuruan diruzaintzako soberakinen 5,9 milioi euro daude erregistratuak, epe laburreko ezarpenetan ezarriak; ordea, “Aldi baterako finantza inbertsioak” idazpuruan egon beharko lukete erregistratuak.

III.2 SARRERA FISKALAK

- 2009ko urtarrilaren 29ko Udalbatzak onetsitako ordenantza fiskalak zatikapen eta zorrak ordaintzeko gerorapenen baldintzak arautzen ditu; Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikulua agintzen duena urratuz ez da GAOn argitara eman.

III.3 LANGILEAK

- 2009ko abenduaren 31n Udalaren karrerako funtzionario bat eta Loinatz Musika Eskola Erakunde Autonomoko lan kontratu finkoa duen langile bat borondatezko eszedentzi egoeran daude lanpostua gordea dutela, 1998ko martxoaren 5eko udalbatzak hartutako erabakiaren arabera; horren indarrez udal langileei eskubide hori aitortzen zaie, betiere laneratzeko eskaria 2 urteko epea iraungi aurretik egiten badute; honek, ordea, urratu egiten du EFPLren 61.1 artikuluan erabakitakoa, izan ere, artikulua honek arautzen baitu egoera administratibo horrek ez duela lanpostua gordetzea ekarriko eta ezin eskatuko dela lanera itzultzea 2 urteko epea iraungi aurretik; halaber, Langileen Estatutuaren 46. artikulua urtebetean ezartzen du lanpostua gordetzeko gehiengo epea.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 2007ko urriaren 25eko osokoaren erabaki bitartez eta ondorengo 2009ko apirilaren 2ko aldaketa bidez, 1. Alkateordearen ordainsariak eta dedikazioaren esleipena ezarri ziren; ordea, ez zen GAOn argitaratu, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen (TAOAL) 75.5 artikulua agintzen duen moduan.
- 2009ko ekitaldian Udalak hainbat talde politikori zuzenean 77.125 euro ordaindu dizkie bileretara joateagatik kalteordain kontzeptuan; horiek zinegotziei ordaindu behar zaizkie eta Udalak horien berri Gipuzkoako Foru Ogasunari eman behar dio zerga ondorioetarako. Gainera, 2007ko uztailaren 29ko Udalbatzak onartutako kalteordain horiek hilabeteko kopuru zehatz bat finkatuta arautu ziren, egiaz joan izanarekin lotu beharrean.
- Udaleko langileei ordaindutako berariazko osagarriak, nahiz 2005eko martxoaren 10eko Osokoak behar bezala onetsi dituen, EFPLn aurreikusitako ordainsarien egiturari egokitzeko gauzatutako lanpostuen balorazio prozesuaren emaitza onartu ondoren, ez dira funtzionarioentzat gordetako lanpostuei dagokienez LZn barne hartu, EFPLren 15. artikulua agintzen duen legez.
- 2009ko ekitaldian indarrean zegoen Udalaren LZk lan-kontratuko langileentzat gordetako 4 lanpostu barne hartzen ditu (zerbitzuburu, liburutegiko arduradun eta 2 administrari); ordea, EFPLren 19. artikuluari jarraiki, langile funtzionarioentzat gordeak behar lukete egon.
- Txosten hau idatzi dugun datan Udalak udaltzaingoko administrari laguntzaile egitekoak betetzeko 1992ko ekitaldian gauzatutako obra edo zerbitzu jakin bateko kontratua dauka indarrean; kontratuaren amaiera lehiaketa-oposaketa bitartez lanpostua bete bitartera artekoa da edo egitekoak bertako langileek betetzekoa. Denboraren joanak eta kontratuaren xedearen definizioak lanpostu horren beharra iraunkorra dela erakusten dute eta honenbestez, dagokion lanpostua sortu behar da LZn eta EFPLn aurreikusitako sistemen bitartez bete.
- Loinatz Musika Eskola Erakunde Autonomoaren LZk kantu eta trikitixa-panderoaren irakasle lanpostuak barne hartzen ditu, txosten hau idatzi dugun datan hutsik daudenak eta azken ekitaldietan behin eta berriz egin diren Enplegu Publikorako Eskaintzan jaso direnak; ordea, ez dira lanpostuak betetzeko deialdiak onartu eta beharizan horiek ikasturte bakoitzeko aldibateko obra edo zerbitzu jakineko kontratu bidez bete dira.
- Udalak eta Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoak langileen aldibaterako kontratazioa gauzatzeko baliatutako lan-poltsak, INEM eta Langairi izangaiak eskatu ondoren hautaketa prozesu bitartez osatu dira. Gomendagarria litzateke deialdi horiei hedapen edo publizitate handiagoa ematea, interesa izan dezaketen ahalik eta gehienei aukera ematearren.



III.4 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 10 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalera zaizkigu (ikus A.15):

- Administrazio klausula partikularren pleguak

9 kontraturi dagozkien pleguek, horietako zazpi 9,7 milioi euroan esleitutakoak eta beste biak, aleko prezioetan, besteak beste, lehiatzaileen kaudimenean oinarritutako irizpideak barne hartzen dituzte eta ez eskaintzaren ezaugarri teknikoetan oinarritutakoak, APKLTBren 15. artikulua eta hurrengoak eta SPKLren 134. artikulua eta hurrengoak agintzen duten moduan (1, 2, 3, 4, 6, 7, 8, 9 eta 10. espedienteak).

Guztira 3,1 milioi euroan esleitutako 2 kontraturen pleguek lehiaketaz kanpo uztea edo eskaintza ekonomikoan 0 puntu ematea agintzen dute neurrigabeko merkatze edo ausartegi irizitako proposamenetan, pleguetan erregelamenduari lotuz finkatutako formula ezarriz eta kontratistari entzun gabe eta geroko izapidea bideratu gabe, nahitaezkoa dena, APKLTBren 86.4 artikuluan edo SPKLren 136.ean aurreikusitakoa. Kontratu horietan zio hori dela eta eskaintzak baztertu dira (1 eta 3 zk.ko espedienteak).

Bi kontraturen pleguek, guztira 3,8 milioi euroko zenbatekoarekin esleitutakoak, prezioaren balorazioa egiteko formula aritmetikoak ezartzen dituzte; irizpide horiek objektiboak eta publikoak diren arren, atal batzuetan puntuazio bera ematen diete eskaintza ezberdinei (7. espedientea), edota puntuazioa proposamenen batez bestekoarekiko distantzia proportzionalak zehazten du (6. espedientea); honela, bada, bi kasuetan merkeen diren eskaintzak zigortzen dituzte.

Horrezaz gain, 2,5 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratu 1en pleguetan eskatzen den behin-behineko bermeak ez du APKLTBren 35. artikulua ezartzen duen zenbatekoa osatzen, izan ere, ehunekoak urteko baten arabera kalkulatu baitira eta ez, kontratuaren prezio osoaren arabera (7. espedientea).

Kudeaketako kontratu 1ean eta zerbitzu kontratu 1ean, hurrenez hurren, 2,5 milioi euroan eta aleko prezioetan esleitutakoak, isilpeko luzapenak egiteko aukera aurreikusten da, APKLTBren 67. artikuluan xedatutakoa urratuz (7 eta 9. espedienteak).

- Esleipena

Guztira 3,3 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 3 kontratutan, irizpideen balorazioa, zeinetan zenbatespena balio-judizio baten baitakoa den, formulak baliatuta kalkulitzen diren irizpideak balioztatu aurretik egin da, SPKLren 134.2 artikuluan aurreikusitakoaren aurka. Espediente horiek maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua indarrean sartu aurretik izapidetu dira; dekretu honek zati batean SPKL garatzen du eta 134.2 artikulua betetzeko zein prozedura eta molde jarraitu behar diren arautzen du (3, 4 eta 5. espedienteak).

Guztira 942.288 euroan esleitutako kontratu 1ean, zeinetan formulak aplikatuta automatikoki neurgarriak diren irizpideek balio-judizio baten baitako zenbatespena duten irizpideak baino haztaperen txikiagoa duten, azken hauen balorazioa ez du gutxienez 3 adituk osatutako batzordeak edo berariaz gaitutako organismo tekniko batek egin eta horrek SPKLren 134.2 artikulua urratzen du. Gainera, espediente horretan "obraren



azterketa" irizpideari dagokionez lehiatzaileei emandako puntuazioak, esleipenerako erabakigarriak izan direnak, ez daude behar bezain justifikatuak, SPKLren 135. artikulua agintzen duenaren aurka (2. espedienteak).

Guztira 3,6 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan eta aleko prezioetan esleitutako lean, gordailatutako behin-betiko bermea eta pleguetan eskatutakoa, urteko lehen zerbatekoaren gaineko ehunekoari dagokio eta ez kontratuaren iraupen osoaren gaineko ehunekoari; horrek APKLTBren 36. artikulua edo SPKLren 83. artikulua urratzen du (7, 9 eta 10. espedienteak).

Guztira 2,8 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan behin-betiko esleipena ez da GAOn argitaratu eta horrek SPKLren 138.2 artikulua urratzen du (3 eta 4. espedienteak).

- **Exekuzioa eta harrera**

Aleko prezioetan esleitutako zerbitzu kontratu lean, kontratuaren gaineko aldaketak, beharizan berri edo ezustekoen ondorioz ale gehiago erosi behar izan direlako, ez ditu kontratazio atalak ez izapidetu, ezta onetsi ere, APKLTBren 101. artikulua xedatutakoaren aurka (9. espedienteak).

Guztira 1,9 euroan esleitutako 2 obra kontratutan, ez da zuinketa egiaztatzeko akta gauzatu, APKLTBren 142. artikulua edo SPKLren 212. artikulua agintzen duen moduan (1 eta 2. espedienteak).

Guztira 1,9 euroan esleitutako 2 kontratutan, ez da zuinketa egiaztatzeko akta gauzatu (1 eta 2. espedienteak) eta 678.913 euroan esleitutako kontratu lean akta hori kontratuaren xedea gauzatu eta hilabetekoa baino epe luzeagoan gauzatu da (4. espedienteak), APKLTBren 147. artikulua edo SPKLren 218. artikulua agintzen duena urratuz.

Guztira 569.206 euroan esleitutako obra kontratu batean, exekuzio epeak urratu direla ikusi dugu, epea luzatzeko dagozkion onespenez bideratu gabe, SPKLren 197. artikulua agindutakoari jarraiki (5. espedienteak).

Guztira 569.206 euroan esleitutako kontratu batean, aldean artean ez da kontratuaren aldaketa gauzatu, APKLTBren 101. artikulua edo SPKLren 202. artikulua agintzen duena urratuz (5. espedienteak).

Guztira 5,1 milioi euroan esleitutako 3 kontratutan, aldaketa bat izapidetu eta onetsi ondoren ez da behin-betiko bermea doitu, APKLTBren 42. artikulua edo SPKLren 87. artikulua agintzen duena urratuz (3, 5 eta 7. espedienteak).

Guztira 2,1 milioi euroan esleitutako obra kontratu batean, etenaldiak izan dira obren egikaritzan, kontratistari egozgarriak ez zaizkionak; horren aurrean, ordea, Udalak ez du etenaldi aktarik egin, APKLTBren 102. artikulua xedatutakoaren aurka (3. espedienteak).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.5 DIRU-LAGUNTZAK

- Garapen bidean dauden herrialdeetan kooperazio proiektuetarako Udalak 2009ko ekitaldian 58.085 euroko diru-laguntzak eman ditu; diru-laguntza horiek arautzen dituzten oinarri-arauek ez dituzte jasotzen ez balorazio irizpideen haztapena, ez kopuru ekonomikoak zehazteko irizpideen balorazio irizpideak ere, gerora aurkeztutako proposamenen balorazioa egingo zuen kanpoko enpresa batek erabiliko zituenak; horrek Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3 artikulua xedatutako urratzen du.

III.6 BEASAIN LANTZEN, SA SOZIJETATE PUBLIKOA

- Antzizar kirolgune berriarekin lotutako obra eta hornigaien kontratazio prozedurak lizitatzeko publizitatea erkidegoaren eremuko 2 egunkaritan iragarkiak jartzera mugatu da; alabaina, kontratuaren bolumen ekonomikoa aintzat hartuta, hedapen handiagoa ematea zatekeen gomendagarria. Txosten hau idatzi dugun datan, ez dira onetsi kontratazio prozedurak arautuko dituzten izapideak, kontratazio araudian buru egiten duten printzipioen eraginkortasuna bermatuko dutenak, SPKLren 175. artikulua agintzen duen moduan.



IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua. Konparazio ondorioetarako, 10.001 eta 20.000 biztanle bitarteko Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalen batez bestekoen 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu dira (eskuragarri dauden azken datuak).

	Milako eurotan			Euroak biztanleko			Erref. 2007	
	Urtea			Urtea			Gip.	EAE
	07(*)	08(*)	09	07	08	09		
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	5.066	5.498	5.746	392	407	424	508	488
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (kap. 4).....	8.487	8.384	7.671	656	620	566	679	705
Ondare sarrerak (5. kap.).....	60	174	156	5	13	11	29	34
A. Diru-sarrera arruntak	13.613	14.056	13.573	1.053	1.040	1.001	1.216	1.227
Langileria gastuak (1. kap.).....	2.712	3.058	3.428	210	227	253	341	346
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	4.001	4.531	5.083	309	335	375	427	410
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	2.107	2.208	2.167	163	163	160	158	172
B. Funtzionamendu gastuak	8.820	9.797	10.678	682	725	788	926	928
Aurrezki gordina (A-B)	4.793	4.259	2.895	371	315	213	290	299
- Finantza gastuak (3. kap.).....	169	191	146	13	14	11	14	9
Emaitza arrunta	4.624	4.068	2.749	358	301	202	276	290
-Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	393	274	1.022	30	20	75	42	28
Aurrezki garbia	4.231	3.794	1.727	328	281	127	234	262
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	878	814	357	68	60	26	116	134
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	938	675	3.321	73	50	245	93	103
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	1.920	3.523	8.917	148	261	658	337	370
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	2.614	651	134	202	48	10	52	56
Kapitalezko eragiketen emaitza.....	(2.718)	(2.685)	(5.373)	(209)	(199)	(397)	(180)	(189)
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.)..	1.906	1.383	(2.624)	149	102	(195)	96	101
Diruzaintza Geldikin Likidoa	7.591	9.116	6.470	587	675	477	440	497
12.31n zorpetzea	8.161	7.887	7.347	631	584	542	410	268

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

OHARRA: Toki Erakundeen Kontuei buruzko HKEEren 2007ko behin-betiko txostena. "Gip." Eta "EAE" erreferentziak, 10.001 eta 20.000 biztanle bitartean dituzten Gipuzkoa eta EAEko udalen datuei dagozkie.

Sarrera arruntak: Aztertutako aldiaren ez du aldaketa adierazgarrikerik erakusten, izan ere, berdinkatu egiten baita 2008ko ekitaldiko % 3ko igoera 2007ko ekitaldiarekiko eta 2009ko ekitaldiko % 3ko beheraldia 2008koarekiko. Ondoko bariazio hauek gailentzen dira:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Sarrera hauek % 13 egin dute gora aztertutako aldiaren eta ondoko kontzeptu hauetako bariazioak nabarmendu dira:
 - Zerga zuzenek eragindako sarrerak % 8 egin dute gora aztertutako aldiaren: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga % 12 igo da eraikuntza berrien altak erroldan eragindako



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

igoeraren ondorioz, nahiz presio fiskal handiagorik ez izan. Jarduera Ekonomikoen gaineko eta Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergak % 26 eta % 7 igo dira, hurrenez hurren, 2008 eta 2009ko ekitaldietarako ordenantza fiskaletan onetsitako tipo zergagarriek % 2,3 eta % 4,9ko igoera izan dutelako; gainera, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kasuan, aldi horretan zerga ikuskaritzak eskuratutako diru-sarrera kontzeptuan ere bai.

- Tasa eta bestelako sarrerengatiko diru-sarrerak % 23 gehitu dira aztertutako aldian; azpimarratzekoa da zaborrak jasotzeko tasa kontzeptuan aitortutako sarrerek eragindako % 20ko igoera, 2008 eta 2009ko ekitaldietan, hurrenez hurren, tasen % 8,6 eta % 8ko gaurkotzeak eragindakoa; hori justifikatzen da Sasieta Mankomunitateak etorkizuneko errauskailuaren kostuei aurre egiteko fakturatutako zerbitzuaren kostua igo izanarekin.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Sarrera hauek % 10 egin dute behera aztertutako aldian. Nagusiki, Udalak Udal Finantzaketarako Foru Fondoa erregistratzeko baliatutako irizpideak justifikatzen du. Izan ere, kontzeptu honekin aitortutako diru-sarrerek 7,6, 7,2 eta 6,2 milioi euro egin dute gora 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldietan, hurrenez hurren.

Funtzionamendu gastuak: Aztergai izan dugun aldian % 21 egin dute gora. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Langile gastuak:** Aztertutako aldian % 26 egin dute gora, batik bat soldaten igoeraren ondorioz (% 5,2, 2008ko ekitaldian; % 2,4, 2009ko ekitaldian), dedikazioa duten karguen igoeraren ondorioz eta kontratazioetan gastu handiagoa egin izanaren ondorioz, bai beharizan iraunkorretan, bai baztertuak izateko arriskuan dauden kolektiboentzako enplegu programetan ere.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak:** Aztergai izan dugun aldian % 27 gehitu dira. Kanpoko enpresei esleitutako ondoko kontratueta dauden bariazioak gailentzen dira:
 - Etxez etxeko laguntza: % 19 egin du gora aztergai izan dugun aldian eta berariaz gailentzen da 2009ko ekitaldian 2008koarekiko izandako % 23ko igoera, hasiera batean onetsitako kontratuaren aldaketak justifikatzen duena, gutxieneko ordu kopuru bat ordaintzeko klausula finkatuz kontratuaren oreka ekonomikoari eustearren. Horren ondorioz, 2009ko ekitaldian 40.249 euro ordaindu dira 2007 eta 2008ko ekitaldien likidazio kontzeptuan eta beste 11.035 euro, 2009ko ekitaldikoak.
 - Parkeak eta lorategiak mantentzea: % 68 egingo du gora aztertutako aldian eta nabarmentzekoa da 2009ko ekitaldian 2008koarekiko izandako % 62ko igoera. Igoera hau kontratu berriaren esleipen prezioak justifikatzen du, 2009ko uztailaren leian abiarazitakoa, zerbitzuaren maiztasuna eta jarduera esparrua areagotu egin baita urbanizazio berriak daudelako.
 - Kale garbiketa: % 71 egin du gora aztertutako aldian eta berariaz azpimarratzekoa da 2008ko ekitaldian 2007koarekiko izandako % 66ko igoera; honen arrazoia da 2007ko azaroaren 29ko Osokoak onetsitako kontratu aldaketa, zerbitzua areagotu egin



baitzen urbanizazio berrien ondorioz eta esleipendunak bere gain hartu baitzuen zerbitzuaren emakida, lehenago hainbat udal langileren artean egiten zena.

- Udal eraikinen garbiketa: % 28 egin du gora aztertutako aldian, lehen udal langileek betetzen zuten zerbitzua enpresa esleipendunari eskualdatu izanaren ondorioz.
- **Transferentzia arruntak:** Aztergai izan dugun aldian % 3 gehitu dira. Ondoko kontusailetakoa bariazioak dira azpimarragarrienak:
- Hiri hondakinak kudeatzeko kontzeptuan Sasietako Mankomunitateari transferentziak: % 20 egin du gora aztertutako aldian zehar zerbitzuaren kostua garestitu izanaren ondorioz; horren berri Tasak eta bestelako sarrerak atalean eman dugu.
 - Gizarte Larrialdietarako Laguntza: Beasaingo Udalak laguntzak ematen ditu EAEn ekarpenen mugara arte eta ez du kontzeptu horrekin bere aurrekontuen kontura gastu osagarri bere gain hartzen. Kontabilizatutako bai gastuak, bai sarrerak % 68ko igoera nozitu du aldian zehar; berariaz aipatzekoa da 2009ko ekitaldiak aurreko ekitaldiarekiko izan duen % 55eko igoera, izan ere, EAEn Gobernu Kontseiluak aparteko ekarpena onetsi baitu, egun bizi dugun egoera ekonomikoaren ondorioz laguntza horien eskatzaile kopuruak izan duen igoera dela-eta.

Aurrezki gordina: Magnitude hau % 40 jaitsi da aztertutako aldian funtzionamendu gastuak igo direlako eta diru-sarrera arruntek bariaziorik izan ez dutelako.

Aurrezki garbia eta zorpetzea: Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du.

Aztertutako aldian finantza zama % 108 gehitu da, batik bat 2009ko ekitaldian – gabealdiaren ondoren- 2004an gauzatutako 7 milioi euroko mailegua amortizatzen hasi izanaren ondorioz; mailegua Beasain Lantzen, SA Sozietatearen kapitalaren gehikuntzak finantzatzeko eskatu zen, udal kiroldegiko lanak finantzatzeko eta UFFF 2008ko likidazio negatiboari zegokion % 50aren 482.577 euroko zenbatekoa amortizatzeke. Horren ondorioz, aztertutako aldian aurrezki garbiak % 59 egin du behera (azpimarratzekoa da 2009ko ekitaldiak aurrekoarekiko izan duen % 54ko beheraldia).

Zorpetze mailari dagokionez, esan behar da Udalak zorpetutako finantza zorrak behera egin duela aztergai izan den aldian, maileguak kitatu baitira eta ez baita epe horretan mailegu berri hitzartu. Gainera, gogoan izan behar dugu 2009ko abenduaren 31n Udalak ordaintzeko dituela Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren 2008ko eta 2009ko behin-betiko likidazioak, 2,3 milioi euroren zenbatekoa egiten dutenak eta zorraren zenbatekoan barne hartu gabe dagoena.



Beasain Lantzen, SA Sozietate Publikoari dagokionez, ekitaldi honetan zorpetze maila nabarmen areagotu dela esan behar dugu Sozietateak duen likidezia eza dela-eta; horren aurrean, batetik, 710.000 euroko epe luzeko mailegua eskatu du, 6. sektorea-Itolako 2 industri pabiloiekin zergapetutako hipoteka duena eta txosten hau idatzi dugun datan oraindik salgai jarraitzen dutenak; eta bestetik, guztira 1,9 milioi euroko 2 kreditu eragiketa gauzatu ditu, 2010eko ekitaldian epe luzeko mailegu bakar batean bildu direnak, horretarako Udalak abala eman behar izan duela. Horiei gaineratu behar diegu 2009ko ekitaldian udalak emandako 454.329 euroko mailegua, zeinaren itzulketa Sozietateak kobratzeko dituen hainbat diru-sarrera gauzatzeari meneratzen zaion. Nolanahi den ere, 2010eko ekitaldian GFAk Antzizar kirolgune berria finantzatzeko 300.000 euroko diru-laguntzaren likidazioa kobratu da eta txostena idatzi dugun datan, artean Udalari itzuli gabe zegoen kopuru hori.

Kapitalezko eragiketen emaitza: Aztertutako aldiko ekitaldi guztiek saldo negatiboa erakusten dute magnitude honi dagokionez; besteetatik 2009ko ekitaldia bereizten da, 5,4 milioi euroko saldo negatiboa duena, "Inbertsio errealak" kapituluak izan duen egikaritzaren zenbateko altua dela eta (2008 eta 2007koa baino, hurrenez hurren 1,2 eta 1 aldiz handiagoa, kopuru horri Udalak Beasain Lantzen, SA Sozietate Publikoari udal kiroldegiko obrak egiteko emandako diru-laguntzen egikaritzea gehitzen badiogu). 2009ko ekitaldian gauzatutako inbertsioen multzoan, besteak beste, udalerriko hainbat gune urbanizatzeko lanak, 2,3 milioi eurokoak, gainditzen dira, % 100ean Toki Inbertsioetarako Estatuko Funtzak finantzatutakoak.

Eragiketa ez finantzarioen emaitza: 2009ko ekitaldian 2,6 milioi euroko saldo negatiboa erakusten du, magnitude honek 2007 eta 2008ko ekitaldietan zituen saldo positiboen aldean; izan ere, kapitalezko eragiketen emaitza finantzatzeko 2009ko UFFFren likidazio negatiboaren itzulketa geroratu da eta ekitaldi hasieran eskuragarri zegoen Diruzaintza Geldikina erabili da.

Diruzaintza geldikina: Magnitude hau % 29 murriztu da 2009ko ekitaldian aurre-aurreko ekitaldiarekiko, aurrezki garbia (2008ko ekitaldiarekiko % 54ko beheraldia izan duena) ez baita nahikoa izan kapitalezko eragiketen emaitza finantzatzeko (magnitude honek beherakada nabarmena jasan du aurreko ekitaldiarekiko, inbertsio maila oso altua izan delako).

Biztanleko Ratioak: Informazio modura, 10.001 eta 20.000 biztanle bitarteko (geruza honetan baitago udala) Gipuzkoa eta EAeko udalen batez bestekoen 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu ditugu (eskuragarri dauden azken datuak). Udalaren datuekiko alderaketak egin ahal izateko, gogoan hartu behar dira zerbitzuak ematean dauden aldeak, izan ere, zenbaitetan zerbitzuak zuzenean ematen baitira udal administrazioetik bertatik, eta beste zenbaitetan, erakunde autonomo, merkataritza sozietate publikoen bidez edo zeharka, mankomunitate, partzuergo edo merkataritzako beste sozietate batzuen bidez.



Ondorioa: Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.

2009ko ekitaldiko kapitalezko eragiketen maila altua ondotik adierazitako moduan finantzatu da: % 37, jasotako kapitalezko transferentzien bitartez (horien % 65 Toki Inbertsioetarako Estatuko Funtsetik etorrira dira); % 19, ekitaldiaren aurrezki garbi positibo bitartez (atzeraldi ekonomikoaren ondorioz, nabarmen urritu da aurreko ekitaldiekiko); eta % 20 UFFFaren likidazio negatiboaren ordainketaren gerorapen bitartez. Finantzaketa iturri hauek ez dira behar adinakoak izan defizitari aurre egiteko eta honenbestez, aurreko ekitaldiko Diruzaintza Geldikinetik eratorritako 1,9 milioi euro baliatu dira.

2010eko ekitaldian Udalak onartu duen aurrekontua fiskalizazio-gai izan den ekitaldian onetsitakoarekiko % 15 txikiagoa izan da; gastu arrunta neurritz murriztea aurreikusi da eta inbertsioak nabarmen urritzea; horiek finantzatzeko ekitaldian eskuratutako baliabideak baliatuko dira, beste zorpetzerik egin gabe. 2010eko ekitaldiaren aurrekontu likidaziotik aurreikusitakoa baino aurrezki gordin handiagoa ondorioztatu da, 3,9 milioi eurokoa hain zuzen ere; izan ere, sarrera arruntak espero baino % 7 handiagoak izan baitira eta funtzionamendu gastuei eusteko helburua betetzea lortu baita (aurrekontu egindakoarekiko % 3 egin dute behera). Finantza zama eta kapitalezko eragiketen emaitza hasiera batean aurreikusitako mailetan mantentzeak ekitaldiaren aurrekontu emaitza positiboa izatea eta diruzaintza geldikina aurreko ekitaldiarekiko % 6 igo izatea ekarri du.

Beasain Lantzen, SA Sozietate Publikoari dagokionez, auditatu diren Urteko Kontuek 2010eko ekitaldian 795.021 euroko galerak izan direla erakutsi dute, eguneroko jardueratik diru-sarrerak eskuratzeko ezintasunaren ondorioz batetik, eta Antzizar kirolgunearen diru-laguntzen eskualdaketak amortizazio gastuaren eta diru-sarreraren aplikazioaren artean eragindako aldearen ondorioz, bestetik. Honi guztiari likidezia ezaren egoera zaila gaineratu behar diogu, Sozietatea epe luzera zorra nabarmen handitzera eraman duena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1. UDALA

2009-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE.	KOB.R.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
1. Zerga zuzenak	A.3	3.027	-	3.027	3.274	3.099	175	108
2. Zeharkako zergak	A.3	600	-	600	757	618	139	126
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	1.196	29	1.225	1.715	1.272	443	140
4. Transferentzia arruntak	A.4	8.958	132	9.090	7.671	7.314	357	84
5. Ondare sarrerak		30	-	30	156	154	2	520
6. Inbertsio errealeen besterentzea	A.5	978	2.577	3.555	357	94	263	10
7. Kapitalezko transferentziak	A.4	1.261	2.752	4.013	3.321	1.876	1.445	83
8. Finantza aktiboak		77	4.982	5.059	15	15	-	(*)19
9. Finantza pasiboak	A.10	-	-	-	1.787	1.787	-	-
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		16.127	10.472	26.599	19.053	16.229	2.824	(*)88

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

GASTUA	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1. Langileria-gastuak	A.6	3.352	80	3.432	3.428	3.427	1	100
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. erosketak.	A.7	5.133	233	5.366	5.083	4.560	523	95
3. Finantza gastuak	A.10	435	(154)	281	146	146	-	52
4. Transferentzia arruntak	A.8	2.432	18	2.450	2.167	1.949	218	88
6. Inbertsio errealak	A.9	4.193	9.184	13.377	8.917	7.562	1.355	67
7. Kapitalezko transferentziak	A.8	78	59	137	134	127	7	98
8. Finantza aktiboak	A.9	77	454	531	510	510	-	96
9. Finantza pasiboak	A.10	427	598	1.025	1.022	1.022	-	100
GASTUAK GUZTIRA		16.127	10.472	26.599	21.407	19.303	2.104	80
SARRERAK - GASTUAK					(2.354)			

AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	KOB.R./		AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	
Zordunak	A.11	3.369	204	2.158	1.007
Hartzekodunak		1.573	37	1.409	127
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(167)		



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	19.053
Obligazio aitortuak.....	(21.407)
AURREKONTU ARRUNTEKO ERAGIKETEN EMAITZA	(2.354)
AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA	(167)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	(2.521)
Finantziatio-desbideratzeak.....	1
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	4.626
DOITUTAKO AURREKONTU EMAITZA	2.106

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza Geldikina 09.1.1ean	9.116
Aurrekontuaren emaitza	(2.521)
Kaudimengab. zuzkiduraren hornid. bariazioa.....	(125)
DIRUZAINZAKO GELDIKIN LIKIDOA 09.12.31-N	6.470
Diruzaintza	7.302
Aurrekontuko zordunak.....	3.831
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	94
Aurrekontuko hartzekodunak	(2.231)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(1.182)
Kaudimen-gabeziatarako hornidurak (A.11).....	(1.344)
DIRUZAINZAKO GELDIKIN LIKIDOA 09.12.31-N	6.470
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina.....	(57)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GELDIKINA	6.413
09.12.31-N ZORPETZEA (A.10)	7.347



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2008 ETA 2009-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	09.12.31	08.12.31	PASIBOA	ERANSKINA	09.12.31	08.12.31
IBILGETUA		28.553	25.213	BEREZKO FUNTSAK		25.396	25.486
Ibilgetu ezmateriala.....	A.9	213	261	Ondarea.....		11.442	11.442
Ibilgetu materiala.....	A.9	14.421	11.946	Atxikita dagoen ondarea.....	A.9	157	157
Abian dagoen ibilgetua.....	A.9	1.788	1.361	Lagapenean dagoen ondarea.....	A.9	343	343
Ibilgetu finantzarioa.....	A.9	12.131	11.645	Atxikitako ondarea.....	A.9	(11)	(11)
				Lagatako ondarea.....	A.9	(5.080)	(4.736)
HAINBAT EKIT. BANATZ. GAST.		-	1	Erabilera orokorrerako ondarea.....	A.9	(26.917)	(22.055)
				Ekitaldi itxien ondorioak.....		40.345	33.775
				Galerak eta Irabaziak.....		5.117	6.571
ZORDUNAK		2.581	2.178	HARTZEKODUNAK EPE LUZERA		8.911	8.013
Aurrekontuzkoak.....	A.11	3.831	3.369	Zorrek e/luz.....		8.681	7.936
Askotariko zordunak.....		93	28	Bermeak eta gordailuak e/luz.....		230	77
Entitate publiko zordunak.....		1	-				
-Kaudimengab. zuzkid.	A.11	(1.344)	(1.219)	HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA		4.148	2.826
				Aurrekontuko hartzekodunak.....		2.231	1.573
FINANTZA-KONTUAK		7.321	8.933	BEZarengatiko hartzek.....		2	-
Langileriarri maileguak.....		19	8	Entitate publiko hartzekodunak.....		331	292
Diruzaintza.....		7.302	8.925	Bestel. hartzekodun ez aurrekontuzkoak		9	18
				Zorrek e/lab.....		936	916
				Bermeak eta gordailuak e/lab.....		639	27
AKTIBOA		38.455	36.325	PASIBOA		38.455	36.325

2008 ETA 2009-KO EKITALDIEN GALDU-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

GASTUAK	09 urtea	08 urtea	SARRERAK	09 urtea	08 urtea
Langileria-gastuak.....	3.615	3.240	Negozio zifratik zenb. garbia ...	788	829
Kanpoko zerbitzuak.....	10.121	5.975	Zerga zuzenak.....	3.274	3.326
Emand. transf. eta dirulag.....	2.301	2.859	Zeharkako zergak.....	757	730
Amortizaziorako zuzkidura.....	365	382	Jasotako transf. eta dirul.....	10.992	9.059
Kaudimengab. zuzkid. aldak.....	125	470	Bestel. kudeaketa sarrerak.....	1.276	1.450
USTIAKETA MOZKINAK	560	2.468			
Finantza gastuak.....	146	192	Finantza sarrerak.....	133	150
			EMAITZA FINANTZARIO NEG.	13	42
Urtealdi itxien gtu.-galerak.....	204	36	Urtealdi itxien sarr. eta mozk. ...	37	2.951
AURREK. ITXIEN EMAITZA POSIT.	-	2.915	EKIT. ITXIEN EMAITZA NEGATIBOAK	167	-
Ibilgetutik eratorritako galerak	10	194	Ibilgetua besterentzeag. mozk.	4.747	1.424
APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK	4.737	1.230			
EKITALDIAREN MOZKINA	5.117	6.571			



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK

2009-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA Euroak milakotan

AITORTUTAKO ESKUBIDEAK	ERANSKINA	ANTZIZAR	LOINATZ	EUSKALTEGIA
3.- Tasak eta bestelako sarrerak		5	162	63
4.- Transferentzia arruntak.....	A.4	203	434	333
GUZTIRA		208	596	396

2009-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA Euroak milakotan

AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK	ERANSKINA	ANTZIZAR	LOINATZ	EUSKALTEGIA
1.- Langileria-gastuak.....	A.6	170	577	332
2.- Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak .		38	15	14
4.- Transferentzia arruntak.....		-	-	6
6.- Inbertsio errealak		-	4	3
GUZTIRA		208	596	355
SARRERAK - GASTUAK		-	-	41

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA Euroak milakotan

	ANTZIZAR	LOINATZ	EUSKALTEGIA
ZORDUNAK			
Hasierako zorra.....	1	61	42
Baliogabetzeak	-	-	2
Kobrantzak	-	59	40
Amaierako zorra	1	2	-
HARTZEKODUNAK			
Hasierako zorra.....	1	5	3
Baliogabetzeak	-	-	-
Ordainketak.....	1	5	3
Amaierako zorra	-	-	-

AURREKONTUAREN EMAITZA Euroak milakotan

	ANTZIZAR	LOINATZ	EUSKALTEGIA
Kitatutako eskubideak	208	596	396
Aitortutako obligazioak.....	(208)	(596)	(355)
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	-	-	41
AURREKO EKITALDIETAKO ERAGIKETEN EMAITZA	-	-	(2)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	-	-	39
Finantzaketa desbideraketak	-	-	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak	-	-	-
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	-	-	39



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan		
	ANTZIZAR	LOINATZ	EUSKALTEGIA
Diruzaintza	29	43	146
Aurrekontuko zordunak.....	21	63	26
Aurrekontuz kanpoko zordunak	9	-	-
Aurrekontuko hartzekodunak	(3)	(2)	(5)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(11)	(34)	(21)
(Zalantzako kobragarritasuneko saldoak)	(1)	(2)	-
DIRUZAINZA GELDIKINA 09.12.31-N	44	68	146
Eraginpeko finantzaketa duten gastuetarako DG .	-	-	-
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	44	68	146
ZORPETZEA	-	-	-

EGOERAREN BALANTZEA 2009-KO ABENDUAREN 31N-N	Euroak milakotan		
	ANTZIZAR	LOINATZ	EUSKALTEGIA
